

KONTROL MOZIOA

HARRERA PROTOKOLOA DELA ETA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2016eko uztailaren 11n Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da

JUSTIFIKAZIOA

2015eko maiatzean, Herritar Berrien Harrera Protokoloa azken balorazio fasean sartu zen. Ordurako, Intxaurren eta Grosen harrera guneak martxan jartzen ari ziren eta alkatearen harrera ekintza ere egiten zen. Urte bereko urriko batzordeetan, alkateak berak baieztatu zigun aurrera jarraituko zuela horrekin, harrera ekintza bezalako ekimenak Udal Gobernuarentzat oso garrantzitsuak zirelako eta Harrera Protokoloak ere garrantzi handia zuelako.

2016eko otsailean, Kultur Aniztasun politiketarako izendatutako zinegotzi ordezkariak adierazi zigun gobernuak oraindik ere ez zuela protokoloaren balorazioarekin amaitu eta jakinaraziko zitzaigula. Modu berean adierazi zigun alkatearen harrera ekintzak ez zuela aurreikusitako harrera jaso eta proposamen berri bat lantzen ari zirela.

2016ko apirilaren 27ko udaltzaren, aho batez, arrazakeria eta xenofobiaren kontrako politika bateratuak bermatzea erabaki zen.

Uztaileko batzordeetan adierazi zitzaigunaren baitan, protokoloa ez da berdintzat mantenduko. Aldaketak daude eta programa berriak txertatuko dira. Pozgarria da jakitea protokoloa garatzen ari dela, baina ez dugu garapen horren inguruko inolako informaziorik (nahiz eta, esan bezala, Udaltzaren onartu zuten apirilean eremu honetan politika bateratuak bermatzea).

Horiek horrela, haxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2017ko aurrekontu proiektua aurkeztu aurretik, Udalbatza osatzen dugun taldeekin herritar berrien harrera protokoloaren inguruko balorazioa eta programa berrien inguruko informazio zehatza -bilera baten bitartez- azaltzea eta elkarlanean proposamenak kontrastatu ahal izateko aukerak bideratzea.

Donostian, 2016eko uztailaren 15ean

Naiara Sampedro Perez
EH BILDU udal taldeko zinegotzia